

Haurreskolak Partzuergoko lan hitzarmeneko 13. artikulu berria

2014ko ekainaren 3an



13. artikulua: ATXIKIPENAK

STEE-EILAS

13. artikulua: ATXIKIPENAK

2013ko Maiatzaren 9an Haurreskolak Partzuergoa, LAB eta STEE-EILAS sindikatuak akordio batera iritsi ginen "Haurreskolak Partzuergoko II Lan Hitzarmenaren ultraktibitatea mantentzen duen akordioa". Daukagun lan hitzarmena mantentzea lortu genuen hurrengo bat sinatu arte .

"Haurreskolak Partzuergoan indarrean dagoen 2008-2009ko Lan hitzarmenaren luzapenean datza: Garbi ikusten dugu hitzarmen hau negoziazio berrirako abiapuntua izateaz gain, denon lan baldintzen berme bihurtu behar dugula, alegia, bere eragina luzatu behar dela hitzarmen berria adostu arte, Lan erreformak zehazten duen ultraktibitatearin muzin eginez."

Era berean dokumentu honek akordio partzialak sinatzeko ahalmena ematen zigun:

"Lan Hitzarmen luzapenak ez du oztopatzen beste gai zehatz batzuei buruzko akordioak lortzea."

Horregatik sinatu bezain laster Mahai Negoziatzaile horretan 13. artikulua aldaketaren negoziatioaren eskaera luzatu genuen. Hainbat bilera burutu ostean, 2014ko urtarrilaren 15ean Lab eta Stee-eilas sindikatuak eta Haurreskolak Partzuergoa adostasun batera heldu ginen, "Haurreskolak Partzuergoko Mahai Negoziatzailearen aurreakordioa lan hitzarmeneko 13. artikulua aldatzeko". Zuzendaritzaren Batzordearen oniritzia jaso du. Eusko Jaurlaritzan, Gobernu Kontseiluak onartu du, Ogasun eta Finantza eta Herri Administrazio eta Justizia Sailek txostena egin ondoren, aurrekontuen legeak agintzen duen bezala.

Ekainaren 3ko Mahai Negoziatzailean 13. artikuluari dagokion Akordioa Lab eta Stee-eilas sindikatuok Enpresarekin batera sinatu dugu. Beraz, 2014ko Uztaileko mugimenduak egiteko indarrean egongo da.

13. artikulua: ATXIKIPENAK

HONELA GERATU DA IDATZITA

13. artikulua.- Atxikipenak.

Ikastetxe zehatz bakoitzeko atxikipenak egiten dira, zenbait arrazoi edo premiaengatik atxikipen desberdina edo egindako atxikipenetan aldaketak egin behar izatea kaltetu gabe.

Antolakuntzarekin, premietara egokitzearekin edo zerbitzu-kalitatearekin zerikusia duten arrazoiengatik, atxikipena aldatzeko aukera du zuzendaritzak. Hilabeteko aurreabisu-epea ezarri da.

Premiazko arrazoiengatik edo zerbitzuaren ezinbesteko premiagatik denbora laburragoan egin behar bada, gutxienez 2 laneguneko aurrerapenaz jakinaraziko zaie eraginpeko langileei, bai bere posta pertsonalera, Haurreskola Partzuergoari eman bazaio, bai ikastetxeari nolana ere. Aurreabisu hori betetzen ez bada, 2 egun libre emanda konpentsatuko zaie, eta enpresarekin adostuta baliatuko dituzte.

Atxikipenaren behin-behineko aldaketa sortu zuen egoera aldatzen denean, jatorrizko ikastetxetara itzultzea eskainiko zaie lehentasunez, bai lanpostu finkoa duten langileei, bai lanpostu hutsa bete arte bitartekotasun-kontratua dutenei. Ikasturtea amaitutakoan, jatorrizko ikastetxera itzuliko dira.

13.1 Atxikipenak egiteko irizpide hauek erabiliko dira.

Ikastetxe batetik zer pertsona mugituko den jakiteko, irizpide hauek erabiliko dira:

- 1. Borondatezko eskaerak onartu egingo dira.
Borondatezko eskaera bat baino gehiago badaude irizpide hauek erabiliko dira, baina alderantziz, hots: lehendabizi lanpostu finkoa duten langileek izango dute lehentasuna; gero bitartekotasun kontratua dutenek lanpostu hutsa bete arte, eta lan-metaketako eta ordezkapeneko kontratuak dituzten hezitzaileak.*
- 2. Lan-metaketako eta/edo ordezkapeneko kontratuak dituzten hezkuntza-langileak, baldin eta kontratu horiek joango diren ikastetxearen premietara egokitzen badira. Ikastetxe horretan horrelako kontratua duten pertsona bat baino gehiago badaude, ordezkapen-poltsaren hurrenkera errespetatuko da.*
- 3. Lanpostu hutsa bete arte bitartekotasun-kontratua duten hezkuntza-langileak. Ikastetxe horretan kontratu bat baino gehiago badaude, ordezkapen-poltsaren hurrenkera errespetatuko da. Horrelako kontratua duen pertsona ordezkapen-zerrendan ez badago, lehenengoa izango da mugitzen.*
- 4. Lanpostu finkoa duten langileak.
Lanpostu finkoa duten langileak mugitu behar diren ikastetxean, lanpostua jabetzan esleitzeko hurrenkera erabiliko da.*

Salbuespeneko kasuak:

- Lan-eskaintza publikoen aurretik adostutako akordioetara lotutako ikastetxeetako hezkuntza-langileak, "historikoak eta 55 urtetik gorakoak" izenekoak.

13. artikulua: ATXIKIPENAK

- *Kontratazio-zerrendetan egoteko behar den profila ez duten hezkuntza-langile integratuak badaude, horien lanpostua ez da aterako lekualdatze-lehiaketara 3 urteko epean, integrazioa gertatu zenetik kontatzen hasita.*
- *Zerbitzu-eginkizunetan ari diren langileak, lanpostuaren egokitze hori sortu zuten kasuak aldatu arte, ikastetxe horretan egongo dira ikasturtean zehar.*
- *Edozein arrazoiengatik lanpostu finkoa duen langile baten lanpostua behin betiko desagertzen bada, behin-behineko atxikipen bat izango de beste ikastetxe batean, jatorrizko lanpostuaren antzinasuna galdu gabe eta, gainera, hurrengo lekualdatze-lehiaketan parte hartu beharko du nahitaez. Antzinasun bera badute, lan-eskaintza publikoaren hurrenkera eta, azkenik, puntuazioek desegingo dute berdinketa. Behin betiko atxikipen bat lortzeko, lekualdatze-lehiaketa batean parte hartu beharko dute nahitaez.*
- *Behin-behineko atxikipena beste ikastetxe batean duen langile finkoak lekualdatzeko irispideak. Ikastetxe batean hezitzaile bat baino gehiago badaude egoera horretan, eta antolakuntzarengatik edo zerbitzu-kalitatearekin lotutako arrazoiengatik behin-behinean beste ikastetxe batera atxiki behar badira, jatorrizko ikastetxeko ontzinasuna hartuko zaie kontuan. Aintzinasun bera badute, lan-eskaintza publikoaren hurrenkerak eta, azkenik, puntuazioek desengingo dute berdinketa.*

Hezitzaileen artean berariazko desadostasuna badago Partzuergoak egindako berratzikipenarekin, gaia batzorde Paritarioan eztabaidatuko da.

13.2 Hezkuntza-langileen egoerak

1. Lan-metaketako edo ordezkapeneko kontratua dutenak.

Kontratua amaitu arte beste ikastetxe batean egon daitezke, eta beste ikastetxe horretan dauden baldintzekin atxiliko dira.

2. Lanpostu hutsa bete arte bitartekotasun- kontratua dutenak.

a) Horrelako kontratua duen langilea, ikasturtean zehar sor daitezkeen arrazoiengatik mugi egin behar bada, behin-behinean mugituko da. Alegia, haren lekualdatzea sortu zuten kausak aldatzen direnean, haren ikastetxera itzul daiteke eta, nolana ere, ikasturtea amaitutakoan itzuliko da.

b) Ikasturte hasi aurretik, lanpostu-zerrendaren arabera langile batek bitartekotasunez betetako lanpostu bat amortizatzen bada, langile hori beste ikastetxe batera atxikiko da mugarik gabe esleipen-prozesu publikoaren bidez.

Kontratu finkoa dutenak.

a) Horrelako kontratua duen langilea, ikasturtean zehar sor daitezkeen arrazoiengatik mugi egin behar bada, behin-behinean mugituko da. Alegia, haren lekualdatzea sortu zuten kasuak aldatzen direnean, haren ikastetxera itzul daiteke eta, nolana ere, ikasturtea amaitutakoan itzuliko da.

b) Lanpostu finkoa duten langileek lekualdatze-lehiaketa bidez soilik alda dezakete beren atxikipena behin betiko.

13. artikulua: ATXIKIPENAK

MOMENTU HONETAN ZERGATIK DAUKA HAIN ERAGIN HANDIA ARTIKULU HONEK?

Haurreskolak Partzuergoa sortu zenetik 10 urte pasa dira. 8 urteetan handitu besterik ez da egin (haurreskolak eta hezitzaileak gehituz). Azken bi urteetan, joera aldatu da, krisiak Euskal Herrian gogor jo duelako. Horren ondorioz; soldatak jaitzi egin dira, langabezia handitu da, jaiotze tasa jaitzi da... familiako kide bat etxean egon ohi da eta bitartean haurreskolako kuotak jaitzi beharrean igo egin dira.

Beraz, egungo egoeraren aurrean Haurreskolak Partzuergoaren matrikulazioa jaitzi egin da, ondorioz, hezitzaileen beharra gutxitu. Enpresak kontratu egonkorrekin dituen hezitzaileak erabiltzen ditu egungo beharrak asetzeko, atxikipena aldatuz eta mugimenduak eginez. Honetarako lan hitzarmeneko 13. artikulua erabili behar du.

Beraz, argi dago, matrikulazioaren jaitzieraren ondorioz ohikoak egin zaizkigula hainbat prozesu eta kontzeptu (13. artikulua, urtean zehar mugimenduak, uztailaren esleipenak finkoentzat, atxikipenak,...).

Haurreskolak Partzuergoak zeukan matrikulazio tasa berriro izateko Stee-eilas sindikatuak proposatzen du **zerbitzu publikoa, doakoa eta unibertsala izatea**.

STEE-EILAS SINDIKATUAREN BALORAZIOA

Oso positibotzat jotzen dugu 13. artikulua aldatu ahal izana, genuen artikulua zaharkitua zegoelako:

- 2008ko lan hitzarmena sinatu zenean langile guztiak ordezkioak ginen eta bi oposaketan bidez langile finkoak sortu ziren. Une horretatik aurrera Kontratu desberdinak zeuden eta atxikipenak egitean ez ziren kontuan hartzen.
- Artikuluaren zehaztaperen maila oso txikia zen eta interpretazio desberdinetarako aukera zegoen.

Sinatu dugun 13. artikulua berri honetan, goian aipatutako bi puntu hauek ekiditen dira; atxikipenak egiteko irizpideetan lan kontratu motetan oinarritzen direlako eta testuari hainbat azalpen gehitu zaizkielako, interpretazio desberdinak ekiditeko helburuarekin.

STEE-EILAS SINDIKATUA - STEE-EILAS SINDIKATUA -STEE-EILAS SINDIKATUA

13. artikulua: ATXIKIPENAK

Stee-eilasek egindako ekarpen batzuk ez dira kontutan hartu adostasunetan, hala eta guztiz ere, seguru gaude onuragarriak izango zirela. Hori dela eta ondoren gure ekarpenak azaldu nahi ditugu:

- *"Ordezkoak beti titularraren menpe egotea mugimenduak eta atxikipenak egiterakoan."*

Honela aldaketa bat egiterakoan titularra bere lanpostura bueltatzean haurreskola bakar batean eragina izango luke. Hau ez onartzean, orain arte gertatzen den bezala, ordezkioak lehenengoak badira mugimenduak egiterakoan titularra lanera bueltatzean 2 haurreskoletan eragina izaten jarraituko du.

- *"Behin-betiko kontratua duten langileak hurrengo irizpideen arabera mugituak izango dira :*
 - Haur-eskola horretan antzinatasuna, LEPa duenetik. Eta behin behineko atxikipenaren bitartez une horretako lanpostua lortu dutenen kasuan, behin betiko lanpostua lortu zuen arteko antzinatasuna gehituko zaie.*
 - *LEParen deialdiaren ordenaren arabera (zaharreetik berrienera).*
 - *LEParen emaitza (kalifikazio altuenetik baxuenera)."*

Hasteko, prozesuan zehar behin-betiko langile guztiak hasieratik baldintza eta eskubide berdinekin parte hartzen dutela bermatzeko. 2012ko berraxikipen prozesuan parte hartu zuten langileek haurreskolako plazen esleipenaren ordena lortu zuten (2008ko Lepa gairiditu zutenak hain zuzen ere) 2008-2009ko antzinatasuna zenbatu gabe geratu ziren. Horregatik berdintasun irizpideak urratu zaizkie. Egindako kaltearen eragina bertan behera uzteko eta urtero ez errepikatzeko Stee-eilas sindikatuak negoziazioaren hasieratik eskatu du: haur-eskola horretan antzinatasuna (LEPa duenetik), LEParen deialdia eta honen emaitza kontutan hartu beharko litzatekeela.

Jarraitzeko, prozesu honetarako Hezkuntza Publikoan erabiltzen diren irizpideak hauek direlako.

Eta azkenik, salbuespenen atalean, azkenengo bi puntuak desagertuko lirateke atal honetatik gure hasierako proposamena aurrera aterako balitz. Zergatik egoera orokorrean ezin da aplikatu gure proposamena eta salbuespenetarako bai?.

HEMENDIK AURRERA ZER?

Adostu dugun 13. artikulua oraingoz honela geratuko da. Etorkizunean Haurreskolak Partzuergoak izango duen bilakaeraren arabera egokitzapen berriak egin beharko ditugula ziur gaude. Unea iristen denean, orain egin dugun bezala langileokin berriro aztertuko dugu egoera eta langileon berdintasuna bermatuko duen sistema baten alde egingo dugu.

Haurreskolak Partzuergoa bizirik dagoen proiektua da, guztiok urteetan zehar eta gure eguneroko lanarekin hobetzen duguna, kalitatezkoa, hezitzailea, euskalduna, laikoa, inklusiboa, integratzailea, izatea lortu dugu.

Aurrerantzean **PUBLIKOA, DOAKOA, UNIBERTSALA, HEZKIDETZAILEA,** izateko lanean jarraituko dugu STEE-EILAStik.

